# Gizarte Ekimeneko patronalek GAAn adostutako arreta zuzeneko ordua ez dutela jeitsiko berretsi dute



...la jornada anual en 20 horas

...TITULADOS NO DOCENTES

...O DE PERSONAL DOCENTE

Dentro del marco del mantenimiento de empleo, y en colaboración con el Departamento de Educación, a partir del curso 2025-2026, se reducirá una hora lectiva en cada etapa.

Se aplicará un incremento de dos horas complementarias de trabajo personal en todas las etapas educativas. La primera en el curso 2024-2025 y la segunda hora complementaria será la resultante de la reducción de hora lectiva realizada para el curso 2025-2026, curso en el que empezará a implementarse dicha segunda hora

Alameda de Urquijo, 2, 3º | 48008 Bilbao (Bizkaia) | Teléfono: 944792100

2

Kristau Eskolak eta AICE-IZEAk, Mahai Negoziatzailean zein LABek gatazka kolektiboa sartzeagatiko egin zen kontziliaketa saioan ere uko egin zioten ordu jeitsierari.

Ostegunean burutu zen Mahai Negoziatzailea sindikatuok elkarrekin egin genuen eskaeraren eraginez burutu zen.

LABek, Mahai horretarako eskaera zuzena egin zuen: Mahaia burutu aurretik Lan Hitzarmen berrirako artikulatu proposamena aurrez jasotzea. Gure harridurarako, etxeko lanak egin gabe etorri ziren, ez baitzuten bidali inongo proposamenik, ezta mahaiean aurkeztu ere.

Mahaiean, adostutako arreta zuzeneko **ordu jeitsiera** etapa guztietan eta ordu hori lan pertsonalera bideratua egon behar zena, **ezin dutela bete berretsi zuten**. Argi dago borondate falta dela ez betetze honen atzean dagoena, ikastetxe batzuetan (%10-15) betetzen ari dira eta.

Gainera, deigarria izan zen, Kristau Eskoletako ordezkari zuzenik ere ez zela etorri, abokatuak soilik bertaratu baitziren. Aitzakiak-aitzaki, luzapenetan jarraitzen dute, fede txarrez eta gaiari dagokion seriotasuna eman gabe.

Gogoratu behar dugu, 14 greba egunetako esfortzuarekin bizkarrean, ikastetxeetako **langileek**, 2024ko otsailaren 5etik, beraien hitza **lehen segundutik betetzen ari direla fin-fin.**

Ez betetzea gauzatzean, **LAB Sindikatuak** bide juridikoa martxan jarri zuen eta **gatazka kolektiboa** aurkeztu zuen Irailaren 15ean **EAEko auzitegian**.

Honi esker, kontziliaketa saioa burutu zen arreta zuzeneko ordu jeitsieraren inguruan Mahai Negoziatzailea amaitu ostean.

**Kontziliaketa** saioan, abokatuek egoera aurkeztu zuten eta **ez zen adostasunik lortu**. Beraz, demanda epaitegietara bideratu da.

Blokeo honek bere **eragin negatiboa** dauka, gauza batzuk ez dira bete eta beste batzuk Lan Hitzarmena argitaratu arte zintzilik daude, hala nola:

- Arrisku psikosozialetako lan taldeak osatu gabe jarraitzen dute ikastetxe batzuetan.
- Berdintasun planak, 50 langile azpiko ikastetxe batzuetan egin gabe jarraitzen dute.
- Lan eta enplegu mantenimenturako 3 bilerak burutu gabe daude.

Hau guztiagatik, **LAB Sindikatuak** bere bidea hartuko du akordioko eduki bakoitza betearazteko beharrezkoak diren tresnak aktibatuz, bai **bide juridikoa zein ekintza sindikala.**

Hau da momentua! Akordioa bete orain!

LAB
EUSKAL SINDIKALISMO ERALDATZAILEA

www.irakaskuntza.lab.eus

676 379 142 (Araba)
689 285 088 (Bizkaia)
674 094 466 (Gipuzkoa)